

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Nazioartekotzea dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira 2026 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones Internacionalización para el año 2026.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: Bizkaia, talentuarekiko konpromisoa; Ekintzailtza aurreratua, Bizkaiko enpresa-sare berriaren motor gisa; Industria eta zerbitzu aurreratuak, lehiakortasun jasangarrirako apustu indartsuagoa; Bizkaia orekatua eta kohesionatua; eta Bizkaia irekia eta erakargarria; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea Nazioartekotzea dirulaguntza-programa arautzea da 2026 urterako, eta horren helburua Bizkaiko enpresek nazioarteko

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: Bizkaia, compromiso por el talento; Emprendimiento avanzado como motor del nuevo tejido empresarial de Bizkaia; Industria y servicios avanzados, una apuesta reforzada por la competitividad sostenible; Bizkaia equilibrada y cohesionada; y Bizkaia abierta y atractiva; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto regular el programa de subvenciones Internacionalización para el año 2026 cuya finalidad es apoyar proyectos para





merkatuetan duten sarbidea eta presentzia handitzea da, laguntza eskainiz beste herrialde batzuetara esportazioak egin ditzaten.

Argi dago kanpoan jardutea garestia eta arriskutsua dela hainbat faktoreengatik, besteak beste, mota horretako lanetan esperientzia gutxi izatea, eta hortik eratorri da hain zuzen ere emaitzen gaineko ziurgabetasun handia. Hala ere, egia da lehenbailehen kokatzea beharrezkoa dela, nazioarteko merkatuetan parte hartzean bezero, pertsona eta erakunde hornitzaile eta teknologia berri gehiagotara iristeko aukera baitago, eta hala, gehitu egiten dira erantzuteko gaitasuna, malgutasuna eta azkartasuna. Horrenbestez, enpresako lehiakortasuna ere gehitu egiten da, eta hazkuntza eta errentagarritasuna ahalbidetzen dira. Horrekin guztiarekin epe luzerako jarraikortasuna lortzen da eta baldintza hori geroz eta beharrezkoagoa da enpresa txiki eta ertainek gaur egungo inguru lehiakorrean bizi irauteko.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2024-2027 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntza ekintza bat aurreikusten du dekretu honen bidez diruz lagundu daitekeen proiektuak bermatzeko, eta Bizkaiko Lurralde historikoaren aurrekontu orokorretan urtero esleitzen dira beharrezkoak diren kredituak eraginkorrak egiteko. Dirulaguntzen ekintza hori "Beste herrialde batzuetarako esportazioa laguntzea" deitzen da eta "Industria eta zerbitzu aurreratuak: lehiakortasun jasangarriaren aldeko apustu indartua"

incrementar el acceso y la presencia de las empresas de Bizkaia en los mercados internacionales, apoyando su acción exportadora a nuevos países.

No cabe duda de que actuar en el extranjero es costoso y arriesgado por múltiples factores como es, entre otros, la falta de experiencia en operaciones de ese tipo, y de ahí la gran incertidumbre sobre los resultados; pero no es menos cierto que se deben tomar posiciones cuanto antes porque la participación en los mercados internacionales permite acceder a una mayor clientela, personas y entidades proveedoras y nuevas tecnologías, incrementando la capacidad, flexibilidad y rapidez de respuesta y por tanto la competitividad empresarial, favoreciendo el crecimiento y la rentabilidad que implican la continuidad a largo plazo y siendo cada vez más una condición necesaria para que las pymes sobrevivan en el entorno competitivo actual.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Promoción Económica prevé una acción subvencional destinada a apoyar los proyectos objeto de subvención en este decreto y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora. Dicha acción subvencional está denominada "Apoyo a la exportación a nuevos países" y contribuye a la consecución del objetivo estratégico "Industria y servicios





izeneko helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, eta helburu horren barruan, "Bizkaiko enpresak nazioarteko merkatuetara irtetea babestea" izeneko helburu espezifikoa.

avanzados: una apuesta reforzada por la competitividad sostenible" y, dentro de él, del objetivo específico "Apoyar la salida a los mercados internacionales de las empresas de Bizkaia".

Laguntza-programa honek euskal administrazioek nazioartekotzeari laguntzeko eskaintzen dituzten tresnen multzoa osatzen du. Programa eta zerbitzu multzo hori katalogo artikulatua da, eta, bertan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nazioartekotzea programak berariaz estaltzen du enpresei ematen zaien laguntza, aldez aurretik ia jarduerarik izan ez duten herrialde batera merkataritzan sartzea proposatzen den bakoitzean.

Este programa de ayudas complementa al conjunto de instrumentos de apoyo a la internacionalización que ofrecen las administraciones vascas. Ese conjunto de programas y servicios constituye un catálogo articulado, en el que el programa Internacionalización de la Diputación Foral de Bizkaia cubre específicamente el apoyo a las empresas cada vez que se propongan la entrada comercial a un país en el que apenas hayan tenido actividad previa.

II

II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenekin bat etorritik.

La competencia sobre la materia objeto de la presente disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, tal y como se deduce de la lectura coordinada del artículo 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia y el artículo 36.1.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, donde se establece que es competencia propia de las Diputaciones la cooperación en el fomento del desarrollo económico y social de acuerdo con las competencias de las demás Administraciones Públicas en este ámbito.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko

El Decreto Foral 61/2024, de 6 de junio, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se





Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 6ko 61/2024 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio, besteak beste, arloko hauetako jarduna: enpresen lehiakortasuna hobetzearen batez ere enpresa txiki eta ertainena, betiere berrikuntza, digitalizazioa eta jasangarritasuna funtsezko ardatz hartuta; industria sustatzea —batez ere, Bizkaiko lehentasunezko industria-sektoreak—; jakintzaren arloko zerbitzu aurreratuak indartzea; enpresak nazioartekotzeko prozesua sustatzea; jarduera esportatzailea laguntzea, eta enpresen arteko lankidetzak sustatzea.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.

aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en la mejora de la competitividad empresarial y especialmente de las pequeñas y medianas empresas, teniendo como eje fundamental la innovación, la digitalización y la sostenibilidad, el impulso a la industria, con especial atención a los sectores industriales prioritarios de Bizkaia, fortalecer los servicios avanzados en conocimiento, impulsar el proceso de internacionalización de las empresas y el apoyo a la actividad exportadora y la promoción de la cooperación empresarial.

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.





4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.

5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

6. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa.

7. Legezketasunari buruzko txostena.

4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.

5. Informe de control económico.

6. Evaluación de impacto climático.

7. Informe de legalidad.

Foru-dekretu hau idatzi denean, bi printzipio hartu dira kontuan: araugintza-teknikari buruzko gidalerroak betetzea eta foru-dekretu honen xede den kolektiboak oinarri arautzaile hauetan araututakoa errazago ulertzeko informazioa sartzea.

En la redacción del presente decreto foral se ha atendido a dos principios: el seguimiento de las directrices de técnica normativa y la incorporación de información que facilite la comprensión de lo regulado en las presentes bases reguladoras por parte del colectivo al que va dirigido este decreto foral.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita, orain 1/2023 Legegintzako Dekretua). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005 (ahora Decreto Legislativo 1/2023). En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación





araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Previa del Impacto en función del género.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la “Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia” aprobada por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

IV

Oinarri haueetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, hurrengo erregelamendua dela bide: 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluen ezarpenari buruzkoa.

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) n.º 2023/2831, de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis.

V

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta 5/2005

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el





Foru Araua garatzen duen Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, bestek beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2025eko urtarrilaren 15eko bileran aztertu ondoren, honako hau

artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria, residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de promoción económica proponer este proyecto de decreto foral.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de Promoción Económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 15 de enero de 2026

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

2026 urterako Nazioartekotzea dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira,

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

Se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones Internacionalización para el año 2026 cuyo





eta honen ondoren doa haren testua.

texto se incluye a continuación.

Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera pertsonaleko datuen babesia.*

Disposición adicional única. *Protección de datos de carácter personal.*

1. Hala bete dadin 13. artikuluan ezartzen duena 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoak, eta 11. artikuluan ezartzen duena abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzekoak, eta eskaerak eta horietatik eratorritako jarduerak kudeatzearen ondorioz, honela tratatuko dira:

Tratamendu-jarduera: Ekonomia sustatzeko ekintzak kudeatzea eta kontrolatzea.

Actividad de tratamiento: Gestión y control de las acciones de promoción económica.

Tratamenduaren arduraduna eta kontaktua: Ekintzailatza, Talentua eta Enpresa Lehiakortasuna bultzatzeko Zuzendaritza Nagusia.

Responsable del tratamiento y contacto: Dirección General de Emprendimiento, Talento y Competitividad Empresarial.

Tratamenduaren helburua: Honako helburu hauek dituzten ekonomia-sustapeneko ekintzak kudeatu eta kontrolatzea: ekintzailatza aurreratua sustatzea; startupak azeleratzea; Bizkaia ekintzailatza eta berrikuntza irekiko erreferente gisa kokatzea; finantzaketa-ekosistema erakargarria sendotzea; talentua erakarri eta sustatzea; emakumeek enpresan, zientzian eta teknologian duten eginkizuna ikusarazi eta sustatzea; berrikuntza, lehiakortasun

Finalidad del tratamiento: Gestión y control de las acciones de promoción económica orientadas a fomentar el emprendimiento avanzado, acelerar las startups, posicionar Bizkaia como referente de emprendimiento e innovación abierta, consolidar un ecosistema de financiación atractivo, atraer e impulsar el talento, visibilizar y potenciar el papel de la mujer en la empresa, la ciencia y la tecnología, fomentar la innovación y competitividad sostenible así como su transición digital y verde y apoyar la red de





jasangarria eta trantsizio digital nahiz berdea bultzatzea; eta bikaintasun-zentroen sarea babestea.

Interesdunaren eskubideak: Honako hauetarako eskubideak balia ditzake tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuak atzitu, zuzendu, oposatu, ezabatu, tratamendua mugatu eta erabaki indibidual automatizatuaren helburu ez izan. Horretarako, idazki bat bidal dezake Informazioaren Segurtasunerako eta Datuen Babeserakoa Atalari, bitarteko hauen bidez aurkeztuta:

BFaren egoitza elektronikoa: <https://www.ebizkaia.eus>

Herritarrentzako BFaren aurrez aurreko arreta-bulegoak: <https://web.bizkaia.eus/eu/erregistro-puntua>

39/2015 Legean ezarritako gainerako lekuak: LOPD.sustapena@bizkaia.eus

Datuen babesari buruzko informazio gehiago: <https://www.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>.

2. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

centros de excelencia.

Derechos de la persona interesada: Podrá ejercer ante el/la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Seguridad de la Información y Protección de Datos, que puede presentarse en:

Sede electrónica de la DFB: <https://www.ebizkaia.eus>

Oficinas de Atención presencial de la DFB: <https://web.bizkaia.eus/es/puntos-de-registro>

Resto de lugares previstos en la Ley 39/2015: LOPD.sustapena@bizkaia.eus

Más información en protección de datos: <https://www.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>.

2. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.





Xedapen iragankor bakarra. *Aurreko urteko Nazioartekotzea programa aplikatzea.*

2025eko Nazioartekotzea dirulaguntza programa arautzen duten oinarriak eta deialdia onetsi zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 23ko 4/2025 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsioak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

Disposición transitoria única. *Aplicación del Programa Internacionalización del año anterior.*

Los procedimientos de reintegros, procedimientos sancionadores, recursos, revisiones y cualquier otro incidente derivado de solicitudes presentadas al amparo del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 4/2025, de 23 de enero, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria del programa de subvenciones Internacionalización 2025 serán resueltos conforme a lo establecido en dicho decreto foral.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Aurreko urteko Nazioartekotzea dirulaguntza-programa indargabetzea.*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da urtarrilaren 23ko 4/2025 Foru Dekretua; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

Disposición derogatoria única. *Derogación del programa de subvenciones Internacionalización del año anterior.*

A la entrada en vigor del presente decreto foral, queda derogado el Decreto Foral 4/2025, de 23 de enero, sin perjuicio de su aplicación a las situaciones creadas bajo su vigencia en los términos previstos en la Disposición transitoria única.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak ematea.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

Disposición final primera. *Habilitación de facultades.*

1. Se faculta a la diputada foral de promoción económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.





2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada edo aurrekontu-zuzkidura agortzen edo handitzen bada, foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onartzen den deialdiaren laburpena.

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

1. Las bases reguladoras aprobadas por este decreto foral entrarán en vigor, una vez publicadas en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, el día que se publique en dicho boletín el extracto de la convocatoria que se aprueba conjuntamente.





2. Foru dekretu honen bidez onartutako deialdiak ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratzen den egunetik aurrera.

2. La convocatoria aprobada por este decreto foral tendrá efectos desde el día que se publique en el “Boletín Oficial de Bizkaia” el extracto de la convocatoria.

Bilbon, 2026ko urtarrilaren 15ean

Dado en Bilbao, a 15 de enero de 2026

Ahaldun Nagusia

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua

La Diputada General

La diputada foral de promoción económica

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

AINARA BASURKO URKIRI





NAZIOARTEKOTZEA DIRULAGUNTZA-
PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN
OINARRIAK ETA DEIALDIA 2026
URTERAKO

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE
SUBVENCIONES
INTERNACIONALIZACIÓN PARA EL AÑO
2026.

Aurkibidea:

Índice:

I. TITULUA **Xedapen orokorrak**

TÍTULO I **Disposiciones generales**

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

2. oinarria. *Definizioak*

Base 2. *Definiciones*

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

4. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

Base 4. *Hecho subvencionable.*

5. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 5. *Gastos subvencionables.*

6. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

Base 6. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

7. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

Base 7. *Dotación presupuestaria.*

II. TITULUA **Araubide juridikoa**

TÍTULO II **Régimen jurídico**

8. oinarria. *Araubide juridikoa.*

Base 8. *Régimen jurídico.*

9. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.*

Base 9. *Órganos competentes y entidad colaboradora.*

10. oinarria. *Arau-haustek eta zehapenak.*

Base 10. *Infracciones y sanciones.*

11. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

Base 11. *Incumplimiento y reintegro.*

12. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

Base 12. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*





III. TITULUA Dirulaguntzak emateko prozedura

13. oinarria. *Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak eta ESEPEn inskribatzea.*

14. oinarria. *Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa eta interoperabilitatea.*

15. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

16. oinarria *Dirulaguntza emateko prozedura.*

17. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

18. oinarria. *Ebazpena.*

19. oinarria. *Errekurtsoak.*

20. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

21. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

22. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

23. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

24. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola

25. oinarria. *Gauzatzeko epea.*

26. oinarria. *Justifikazio-epea.*

TÍTULO III Procedimiento de concesión

Base 13. *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites e inscripción en el REPPE.*

Base 14. *Documentación necesaria para la solicitud e interoperabilidad.*

Base 15. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Base 16. *Procedimiento de concesión.*

Base 17. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

Base 18. *Resolución.*

Base 19. *Recursos.*

Base 20. *Renuncia a la subvención.*

Base 21. *Modificación de la resolución de concesión.*

Base 22. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Base 23. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Base 24. *Notificación electrónica.*

TÍTULO IV Ejecución, justificación y control

Base 25. *Plazo de ejecución.*

Base 26. *Plazo de justificación.*





27. oinarria. Azpikontratazioa.

Base 27. Subcontratación.

28. oinarria. Dirulaguntzak justifikatzea.

Base 28. Justificación de las subvenciones.

29. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea.

Base 29. Pago de la subvención.

30. oinarria. Laguntzak metatzea.

Base 30. Acumulación de ayudas.

31. oinarria Laguntzen bateragarritasuna.

Base 31 Compatibilidad de las ayudas.

32. oinarria. Pertsona onuradunen beste betebehar batzuk.

Base 32. Otras obligaciones de las personas beneficiarias.

33. oinarria. Onuradunaren subrogazioa eta eskatzailearen subrogazioa.

Base 33. Subrogación de la persona beneficiaria y subrogación de la persona solicitante.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. Dirulaguntzaren helburua.

Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

a) Bizkaiko enpresek nazioarteko merkatuetan duten sarbidea eta presentzia handitzea, laguntza eskainiz beste herrialde batzuetara esportazioak egin ditzaten.

b) Enpresen lehiakortasuna sustatzea, enpresen nazioartekotzea ahalbidetuta, berme gisa eta etorkizunaren aldeko apustu gisa.

TÍTULO I

Disposiciones generales

Base 1. Objetivo de la subvención.

Mediante este programa de subvenciones se pretenden alcanzar los siguientes objetivos:

a) Incrementar el acceso y la presencia de las empresas de Bizkaia en los mercados internacionales, apoyando su acción exportadora a nuevos países.

b) Impulsar la competitividad empresarial favoreciendo la internacionalización de las empresas como apuesta de garantía y futuro.





2. oinarria. Definizioak.

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

a) «Enpresa»: bezeroek eskatzen dituzten ondasunak edo zerbitzuak ekoizten edo ematen dituen erakundea; jarduera horretatik etekin ekonomiko bat lortzen duena, berez nortasun juridikoa duena, hura sortu zuten, kapital soziala duten edo bertan lan egiten duten pertsonak alde batera utzita. Halakotzat hartuko dira sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, komanditako sozietate sinpleak edo akziozkoak, kooperatiba-sozietateak, mutuak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, merkataritza-forma duten sozietate zibilak, elkarren bermerako sozietateak eta interes ekonomikoko elkarteak.

b) «Produkzio-zentroa»: antolamendu espezifiko duen ekoizpen-unitatea, hala alta emanda dagoena lan-agintaritzaren aurrean, lantoki bat osatzen duena Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 1.5 artikulua araberak.

c) «Herrialde berria»: Herrialde berritatz hartuko da enpresak azken urteetan merkataritza-jarduera esanguratsurik egin ez duena. Ondorio horietarako, ez da herrialde berritatz hartuko honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:

1) Enpresak ordezkaritza izatea herrialde

Base 2. Definiciones.

A los efectos de las presentes bases y convocatoria se entenderá por:

a) «Empresa»: organización que se dedica a la producción o prestación de bienes o servicios que son demandados por clientes; obteniendo de esta actividad un rédito económico, que en sí misma tiene personalidad jurídica independientemente de las personas que la fundaron, poseen su capital social o desarrollan en ellas su trabajo. Se considerarán como tal las sociedades anónimas, sociedades de responsabilidad limitada, sociedades comanditarias simples o por acciones, sociedades cooperativas, mutuas, mutualidades de previsión social, sociedades civiles con forma mercantil, sociedades de garantía recíproca y agrupaciones de interés económico.

b) «Centro productivo»: unidad productiva con organización específica, que sea dada de alta, como tal, ante la autoridad laboral, que constituye un centro de trabajo conforme al artículo 1.5 del Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores.

c) «Nuevo país»: Se entenderá por nuevo país aquel en el que la empresa no haya desarrollado en los últimos años actividad comercial significativa. A estos efectos no se considerará nuevo país aquel en el que se dé alguna de las siguientes circunstancias:

1.º Que la empresa tenga delegación en el





horretan.

2) Azken hiru ekitaldietan herrialdean izandako negozio bolumena hiru ekitaldi horietan enpresaren negozio bolumen osoaren % 5 baino handiagoa izatea, hiru ekitaldi horietan bi zifren batuketa erabiliz kalkulatuta. Negozio-bolumena negozio-zifraren zenbateko garbiari dagokiola joko da.

3) Enpresak herrialde horretara nazioartekotze proiektuetarako birritan edo gehiagotan laguntza lortu izana Bizkaiko Foru Aldundiaren Nazioartekotze Programaren aurreko urteetako deialdietan.

d) «Ordezkaritza»: Enpresa batek herrialde batean ordezkari bat duela ulertuko da edozein motatako establezimendu iraunkor bat duenean eta herrialdean identifikazio fiskaleko zenbaki edo kode bat duenean.

e) «Nazioartekotze-plana»: Nazioartekotze-plantzat hartuko da enpresaren esportazio-ahalmena aztertzen duen dokumentua, enpresarentzat izan daitezkeen xede-merkatuak aztertzen dituen, nazioartekotzerako lehentasunezko helmugak eta merkatu-segmentuak hautatzen dituen, eta hautatutako helmuga edo merkatu bakoitzean sartzeko beharrezkoak diren sarbideak, eskakizunak, baliabideak eta ekintzak deskribatzen dituen. Eskabideak aurkezteko epea ireki eta azken 5 urteetan emandako nazioartekotze-planak baliozkotzat joko dira, baldin eta lehentasunezko helburuen

país.

2.º Que el importe del volumen de negocio en el país en los tres últimos ejercicios haya sido superior al 5% del volumen de negocio total de la empresa en esos tres mismos ejercicios, calculado a partir de la suma de ambas cifras en esos tres ejercicios. Se considerará que el volumen de negocio corresponde al importe neto de la cifra de negocio.

3.º Que la empresa haya obtenido subvención para proyectos de internacionalización en ese país en dos o más ocasiones en convocatorias de años anteriores del Programa de Internacionalización de la Diputación Foral de Bizkaia.

d) «Delegación»: Se entenderá que una empresa tiene una delegación en un país cuando cuente con algún establecimiento permanente de cualquier tipo y cuenta con un número o código de identificación fiscal en el país.

e) «Plan de internacionalización»: Se entenderá por plan de internacionalización un documento que analice el potencial exportador de la empresa, estudie los posibles mercados destino para la empresa, seleccione destinos y segmentos de mercado preferentes para la internacionalización y describa las vías de acceso, requisitos, recursos y acciones necesarios para la entrada en cada destino o mercado seleccionado. Se entenderán válidos los planes de internacionalización emitidos en los últimos 5 años desde la fecha de apertura del plazo de solicitudes que incluyan entre los destinos preferentes





artean jasotzen badute zein herrialdearako eskatzen den dirulaguntza.

f) «Herrialde batean destinatutako langileak»: herrialde jakin batean destinatutako langiletzat joko dira 3.2.d) oinarriaren arabera enpresaren plantillako langileak, baldin eta 2 hilabete baino gehiago ematen badituzte dirulaguntza eskatzen den proiektuko herrialdean, eta haien egonaldiak ez badu irauteko asmorik, eta helburua bada merkatua irekitzeko lanak egitea, ordezkaritza bat sortu aurretik edo sortu gabe.

g) «Kanpo merkataritzan espezializatutako teknikariak»: Kanpo merkataritzako teknikari espezializatutzat joko dira kanpo-merkataritzan edo helmuga herrialderako espezializatutako marketin digitalean gutxienez bi urteko esperientzia profesionala duten pertsonak. Esperientzia zenbatzeko, kontuan hartuko da enpresetako kanpo-merkataritzako edo marketin digitaleko zereginetan lan egindako denbora edo erakunde ofizial baten kanpo-merkataritzako beka batekin lotutako praktikaldia.

el país para cuya entrada se solicita subvención.

f) «Personal destinado en un país»: Se entenderá como personal destinado en un determinado país aquellas personas pertenecientes a la plantilla de la empresa conforme a la base 3.2.d), que permanezcan un periodo superior a 2 meses en el país del proyecto para el que se solicita subvención, cuya estancia no tiene vocación de permanencia y tenga por objetivo la realización de labores de apertura de mercado, previas o ajenas a la creación de una delegación.

g) «Personal técnico especializado en comercio exterior»: Se entenderá como personal técnico especializado en comercio exterior aquellas personas que posean experiencia profesional demostrable de al menos dos años en comercio exterior o en marketing digital especializado para el país de destino. Para el cómputo de la experiencia se tendrá en consideración el tiempo trabajado en labores de comercio exterior o marketing digital en empresas o el tiempo de prácticas relacionadas con una beca de comercio exterior de un organismo oficial.

3. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

1. Berezko nortasun juridikoa daukaten enpresak izan daitezke dirulaguntzen onuradunak.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte

Base 3. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones las empresas con personalidad jurídica propia.

2. Las entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes





dirulaguntzaren onuradun izateko:

requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

a) Tener su domicilio social y fiscal en el Territorio Histórico de Bizkaia.

b) Gutxienez ekoizpen zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

b) Tener al menos un centro productivo en el Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Hauetariko jarduera izatea: industria, eraikuntza, garraioa, industriari lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza. Horretarako bere jardueretako bat gutxienez Eranskinean jasotako 2025eko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionalako (EJSN) epigrafeen barruan egon behar du (2025eko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionala onartzen duen urtarrilaren 14ko 10/2025 Errege Dekretuaren bidez arautua. Enpresak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emanda egon beharko du jarduera horri dagokion epigrafean.

c) Desarrollar su actividad en los sectores de la Industria, Construcción, Transporte, Servicios conexos con la Industria, Turismo y Comercio al por mayor, de manera que alguna de sus actividades quede integrada dentro de los epígrafes de la CNAE 2025, - Clasificación Nacional de Actividades Económicas- (regulada mediante Real Decreto 10/2025, de 14 de enero, por el que se aprueba la Clasificación Nacional de Actividades Económicas 2025) recogidos en el Anexo. La empresa deberá estar dada de alta en la matrícula del Impuesto sobre Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente a dicha actividad.

d) 5 eta 100 pertsona arteko langile edukitzea, lansaio osokoak urteko kopuru baliokideetan.

d) Tener una plantilla entre 5 y 100 personas, en equivalentes anuales a jornada completa.

Langiletzat joko dira lan-kontratu baten bidez enpresari lotuta dauden pertsonak, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuta badaude.

Se considerarán pertenecientes a la plantilla las personas vinculadas a la empresa por un contrato laboral, incluidas en el Régimen General de la Seguridad Social.

Halaber, langiletzat joko dira lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta ez badaude ere, eta enpresan lan- edo lanbide-jarduera garatzen duten pertsonak, baldin eta, beren izaeragatik, ezin badira Gizarte Segurantzaren Araubide

También se considerarán integrantes de la plantilla las personas socias trabajadoras de cooperativas de trabajo asociado aun cuando no estuvieran incluidas en el Régimen General de la Seguridad Social, y las personas que desarrollan su actividad laboral o profesional en la empresa que, por





Orokorrean alta emanda egon, Segurtasunaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 305.2 artikulua b eta e letretan jasotakoaren arabera.

su condición, no puedan estar dadas de alta en el Régimen General de la Seguridad Social conforme a lo recogido en las letras b y e del artículo 305.2 del Real Decreto Legislativo 8/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social.

Ez dira plantillakotzat joko atzerriko instalazioetan lan egiteko kontratatu diren langileak.

No se considerará perteneciente a la plantilla al personal contratado para trabajar en plantas en el extranjero.

Seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik lansaioaren murrizketen kasuan, erakunde eskatzailearen beraren eskariz, murrizketa kontuan hartu gabe konputatu ahal izango dira lansaio horiek.

En el caso de reducciones de jornada por cuidado de hijos e hijas o de personas en situación de dependencia se podrán computar, a petición de la entidad solicitante, las jornadas de estas personas sin tener en cuenta la reducción.

e) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.3 bis artikulua arabera (aurrerantzean, 38/2003 Legea), 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetan, eskatzaileak merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari (aurrerantzean, 3/2004 Legea) lotutako irabazi-asmorik gabeko zuzenbide publikoko erakundeez bestelako pertsona fisikoak edo juridikoak badira, ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, artikulua horretan xedatutako baldintzetan. Enpresa hornitzaileari aldez aurretik kobratzea ahalbidetzen dion finantzaketa oro baliozkotzat joko da apartatu hau betetzeari dagokionez, baldin eta haren kostua bezeroaren kontura bada eta, ordaindu ezean, hornitzailearengana

e) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003), para subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean personas físicas y jurídicas, distintas de las entidades de derecho público, con ánimo de lucro sujetas a la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales (en adelante Ley 3/2004), deberán acreditar cumplir, en los términos dispuestos en ese artículo, los plazos de pago. Cualquier financiación que permita el cobro anticipado de la empresa proveedora se considerará válida a efectos del cumplimiento de este apartado, siempre y cuando su coste corra a cargo del cliente y se haga sin posibilidad de recurso al





jotzeko aukerarik gabe egiten bada. Baldintza hori betetzen dela eskabidea aurkezten den unean egiaztatuko da, eta egiaztatu ezean, zuzentzeko errekerimendua egingo da.

f) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretak batean ere).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu. Aurrekotik salbuetsita dago d) baldintza; hori eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko da. Aurrekotik salbuetsita ere badago 5/2005 Foru Arauaren 12.2.b artikuluan ezarritako debekua, salbu eta konkurtso-likidazioaren fasea ireki dela aitortu bada; hori eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean eta emakida egiten den unera arte mantendu beharko baitira.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen

proveedor en caso de impago únicamente. La acreditación del cumplimiento de este requisito se realizará en el momento de presentar la solicitud y la falta de acreditación será objeto de requerimiento de subsanación.

f) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos. Se exceptúa de lo anterior el requisito d) que deberá cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Se exceptúa de lo anterior, también, la prohibición establecida en el artículo 12.2.b de la Norma Foral 5/2005 salvo en el caso en que se haya declarado la apertura de la fase de liquidación concursal, que deberá cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerse hasta el momento de la concesión.

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 23.2 del





testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan (aurrerantzean 1/2023 Legegintzak Dekretua) adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik (aurrerantzean 15/2022 Legea).

c) Sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak.

d) Ondasun-erkidegoak.

e) Sozietate zibilak.

f) elkarteak, fundazioak, federazioak, partidu politikoak eta erlijio erakundeak.

g) Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela, laguntza hori berreskuratzeko agindu baten menpe dauden pertsonak edo erakundeak.

h) Sektore hauetakoren batean jarduerak egiten dituztenak: arrantzako eta akuikulturako produktuen eta nekazaritzako produktuen lehen mailako ekoizpena, eraldaketa eta merkaturatzea, 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (UE) Batzordearen Erregelamenduaren 1.1.a), b),

Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres (en adelante Decreto Legislativo 1/2023).

